

Finlandia, Suomi

Euskaldunon Egunkaria, 1996-12-15: 3.

Orain hilabete batzuk jaso nuen, Erein-ek bidalita, Rax Rinnekangasen *Ilargia ihesi* eleberria. Sinpatiaz jaso, gainera, liburua, egilea suomiarra delako, eta gogo biziz irakurri nuen, alajaina. Hasierako begikotasunak bazuen arrazoi kulturala: nere garaiko abertzale euskaldunok ia aberkide bezala sentitzen genituen askatasun borrokan ari ziren herritarrak, hauen artean bereziki irlandarrak eta finlandiarrak. Irlandarrak, Eli Gallastegiren bitartez, Aberri Egunetan izan genituen harremanak zirela eta; eta finlandiarrak, berriz, nik uste Luis Eleizalde (Razas, *lengua y nación vasca*, 1914) egindako aipamenak edo Sabin Arana berak, edo gero Aitzolek aipatutako ereduak zirela kausa. Gogoan dut guretzat *Kalevala*-k izan zuen etsenplua euskal literaturarako, eta Sibelius musikariak, gure soinularientzat erreferentzia abertzale bezala; zeren finlandiarren XIX.go berpizte nazionala zen gure modeluetako bat. Espiritu horretan irakurri nuen *Ilargia ihesi*, eta asko gustatu zitzaidan, eta ikusi dut orain EGUNKARIAN Rinnekangas jaunak Koldo Mitxelenan eman berri duen hitzaldiaren aipamena. Bizi diren herriek aurkitzen dute beti elkar berotzeko odola!